



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2026ko urtarrila

BERBA-LAPIKO

Garapen metodologikoa ahozko
konpetentzietan aurrera egiteko

**Hedapena
ikastetxeetan eta
Digitalizazioa**



Proiektuaren Garapen Taldea:

Olatz Bengoetxea Manterola – Soziolinguistika Klusterra – *Koordinatzailea*
Paula Laita Pallares – Soziolinguistika Klusterra
Agurtzane Azpeitia Eizagirre – Mondragon Unibertsitatea. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) – *Zuzendaria*

Sekuentzia Didaktikoaren lantaldea:

Leire Diaz de Gereñu Lasaga – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)
Ibon Manterola Garate – Elebilab (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Berritzegune Nagusiko Aholkulariak

Sustatzailea


Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila
Soziolinguistika Klusterra

Txostenaren idazleak:

Paula Laita
Agurtzane Azpeitia
Iradi Sagredo Tolosa

Soziolinguistika Klusterra Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain 943 592 556
<https://soziolinguistika.eus/eu/> kluster@soziolinguistika.eus

2026ko urtarrila




Lan hau Creative Commons Aitortu-Partekatu Berdin 4.0 Nazioartekoa (CC-BY-SA 4.0) lizentziarekin zabaltzen da. Lizentziaren kopia bat ikusteko, bisitatu <http://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0>

0 SARRERA	4
1 HEDAPENA IKASTETXEETAN	5
1.1 2024-2025EKO IKASTURTEKO AHOLKULARITZAKO PROZESUA ETA LANAK ..	6
1.2 2025-2026 IKASTURTERAKO AHOLKULARIENTZAKO PRESTAKUNTZA	9
1.3 IRAKASLEEN BALORAZIOAK	11
1.3.1 Nola sentitu diren	11
1.3.2 Metodologia	11
1.3.3 Metodologiak izandako harrera	13
1.3.4 Prestakuntza	15
1.3.5 Balorazio orokorra	17
2 DIGITALIZAZIOA	18
2.1 MOODLE PLATAFORMA	18
2.2 MATERIALAREN LANKETA	19
3 ONDORIO NAGUSIAK	24

0 SARRERA

2025. urtean Berba-lapiko proiektuan hiru ildo jarri dira martxan, beheko irudian ikus daitekeen moduan: *Hedapena Ikastetxeetan*, *Ekintza-Ikerketa 3.0* eta *Digitalizazioa*. Txosten honetan lehenengo eta hirugarren ildoak helduko zaie:



1. irudia. Berba-lapiko proiektuaren ildoak

Berba-lapiko egitasmoa ARRUE programaren baitan kokatzen da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantziatutako dirulaguntzaren bidez. Egitasmoa Soziolinguistika Klusterrak (SLK) abiatu zuen 2017-2018 ikasturtean HUHEZIKo zuzendaritzarekin batera. EHUKo ELEBILAB ikerketa-taldeak ere parte hartu du proiektuaren hasierako urteetan.

Berba-lapiko proiektua hezkuntza esparruan euskararen erabileran eta konpetentzian sakontzeko proposamena dugu, batik bat testuinguru soziolinguistiko erdaldunetan kokatzen dena. Prestakuntza-ikerketa bidea eginez sakondu nahi da, euskararen ahozko konpetentzia praktikoa eta eraginkorra lortzeko irakasleen prestakuntzan, metodologia berriztatzean eta ikasleen garapen adierazleetan.

Txosten honetan, 2025ean garatutako bi lan-ildoetan jorratutako lanak jaso dira:

1. **Hedapena ikastetxeetan:** Berba-lapiko aholkularitza eta jarraipena
2. **Digitalizazioa:** Berba-lapiko mundu digitalera eramatea

1 HEDAPENA IKASTETXEETAN

Berba-lapiko ikerketaren abiapuntutik bertatik, lehentasunezko xedeetako bat izan da sortutako ezagutza hedatzea: alegia, hasierako bi ikastetxeetan lau urtez garatutako ikerketak utzitako ondorioak eta ikaskuntza nagusiak egoera antzekoa duten beste ikastetxe batzuen mesedetan jartzea. Norabide horri eutsiz, hedapen-lanari jarraipena eman zaio 2025ean ere.

Hona hemen 2024-2025 ikasturtean ikastetxeetan zabalkuntza estrategiari buruzko zenbait datu:

- Ikasturte honetan **41 ikastetxetan** abiatu da egitasmoa: Arabako Lehen Hezkuntzako 10, Bizkaiko 18 eta Gipuzkoako 11 ikastetxetan.
- **5236 ikasle inguru** aritu dira **hiru hilabetez** ahozkoa modu jabetu batean lantzen.
- **331 irakasle prestatu** dira ahozko hizkuntza lantzeko oinarrietan. Aurten lehen aldiz egitasmoa abiatu den ikastetxeetan LH1 eta LH2ko irakasle eta ikasleekin lan egin da; aurreko ikasturteetatik parte hartu diren ikastetxeetan, berriz, LH1, LH2, LH3 eta LH4koekin jardun da.
- **Berritzegune Nagusiko 8 aholkulariek** jaso dute prestakuntza. Gidaritza eta aholkularitza eskaini dute.

Ibilbide osoa ikusteko, beheko taulan jaso dira azken urteetako datuak:

BERBA-LAPIKON PARTE-HARTZEAREN BILAKAERA (2022-2026)

IKASTURTEA	IKASTETXEAK	IKASLEAK	IRAKASLEAK	AHOLKULARIAK
2022-2023	33	3000	140	9
2023-2024	40	5300	245	8
2024-2025	41	5236	331	8
2025-2026	44	6460	340	4

2024-2025ean egitasmoa ikastetxe berrietara modu eraginkorrean hedatzeko, funtsezkoa izan da irakasleek jaso beharreko prestakuntza ondo pentsatu, diseinatu eta eskuragarri jartzea. Horretarako, aholkularitza antolatzen bi maila bereizi dira. Alde batetik, Soziolinguistika Klusterrak eta HUHEZIK osatutako lantaldeak Berritzeguneko teknikarien taldeari eman dio aholkularitza. Bestetik, teknikari bakoitzak ikastetxe jakin batzuen jarraipena hartu du bere gain guk eskainitako orientazioa ikastetxean bertan gauzatuz eta hango irakasle-taldearekin zuzenean lanean jardunez. Horrez gain, Berritzeguneko teknikariak funtsezko eragile izan dira Soziolinguistika klusterra-HUHEZI lantaldeak ikastetxeetako egoeraren berri izateko eta, prozesuan zehar, behar izan diren doikuntzak eta egokitzapenak garaiz egiteko.

Zubi horiek ahalik eta eraginkorrenak izan daitezen, bi mailen arteko harremana etengabeko joan-etorri gisa ulertu eta antolatu da. Hau da, ez da proposatu lehenengo teknikariei aholkularitza guztia amaitzea eta ondoren haiek ikastetxeetara joatea prestakuntza ematera; aitzitik, oinarri batzuk partekatu ondoren, teknikariek oinarri horiek ikastetxean landu dituzte, eta ondorengo deboluzioaren bidez Soziolinguistika klusterra-HUHEZI taldeari itzuli diote egindakoaren berri. Horren gainean, lantaldeak materialaren eta edukiaren inguruko prestakuntza eman die berriro teknikariei, haiek ikastetxeetan gauza bera egiteko. Modu horretako jarraipenari esker, aholkularitza prozesua Berritzeguneko teknikarien zein ikastetxeetako irakasleen beharretara egokitzen joan da uneoro.

1.1 2024-2025EKO IKASTURTEKO AHOLKULARITZAKO PROZESUA ETA LANAK

Urrats nagusi batzuk nabarmendu dira prozesuaren antolaketan:

- Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu.
- Agendak lotu.
- Ikastetxeekin harremanetan jarri.
- Ikerketarako ikastetxeak hautatu.
- Ikastetxe berrietan eta aurreko urtean parte hartu zutenetan proiektuaren sarrera nola egin irudikatu.

ANTOLAKETA 2024ko udazkenean	<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu. • Agendak lotu. • Ikastetxeekin harremanetan jarri. • Ikerketarako ikastetxeak hautatu. • Ikastetxe berrietan eta aurreko urtean parte hartu zutenetan proiektuaren sarrera nola egin irudikatu. 		
AHOLKULARIEI PRESAKUNTZA 2024ko udazkenean	ZEREGINA	ANTOLAKETA	OHARRAK
	3 prestakuntza saio saio bakarrean: <ul style="list-style-type: none"> • Ahozko hizkuntzaren oinarriak • Hizkuntza errutina metodologia nahiz material didaktikoak. 	SLK-HUHEZI taldeak BNAek prestatu.	Iraupena: 3 ordu Ikastetxeetan bi orduko saioa eman, baina aholkulariekin tarte luzeagoa hartu. Aurrez aurre.
		BNAen barne-koordinazioa	Iraupena: 1,5 ordu BNA-koordinazioa: Prestakuntza jaso ondoren, aholkulariak bildu euren artean gaia lantzen jarraitzeko.

	<ul style="list-style-type: none"> Material didaktikoa inplementatzeko gakoak eta estrategiak. 		
IRAKASLEEI PRESTAKUNTZA 2024ko udazkenean	3 prestakuntza saio	BNAek → irakasleak prestatu.	Iraupena: 2 ordu. Aurrez aurre. Ikastetxe ezberdinek elkarrekin prestakuntza jaso.
			Iraupena: 2 ordu. Aurrez aurre. Ikastetxe ezberdinek elkarrekin prestakuntza jaso.
			Iraupena: 2 ordu. Aurrez aurre. Prestakuntza saioak amaitu ondoren, irakasleek tarte bat hartu material didaktikoa irakurtzeko eta ezagutzeko.
PRESTAKUNTZA REN JARRAIPENA 2024ko udazkenean	Jarraipen-saioak	BNAek + irakasleekin jarraipen saioak.	Iraupena: 45´ saio bakoitzak. Online.
		SLK-Huhezi taldeak + BNAek jarraipen-saioa.	BNA-koordinazioa: Berba-lapiko taldearekin elkartu aurretik, 2. prestakuntza-saioaren ondorengo zalantzak eta oharrak konpartitu. Iraupena: ordu 1. Online.
		SLK-Huhezi taldeak → BNAek prestatu.	Iraupena: 3 ordu. Aurrez aurre. Iraupena: 1 ordu eta 30´ BNA-koordinazioa: Prestakuntza jaso ondoren, aholkulariak bildu euren artean gaia lantzen jarraitzeko.

		BNAek → irakasleak prestatu.	Iraupena: 2 ordu. Aurrez aurre.
INPLEMENTAZIOA ETA JARRAIPENA	Inplementazioa aktibatzen	BNAek → irakasleei gogorarazi.	Mezu bat bidali irakasle guztiei gaia aktibatzea gogoraraziz.
	Material didaktikoaren implementazioa	Irakasleak + ikasleak	Astean 4 saio eginda.
	Jarraipen-saioak	BNAek + irakasleekin jarraipen saioak.	Iraupena: 45´ saio bakoitzak. Online.
		SLK-Huhezi taldeak + BNAek jarraipen saioa.	AH-koordinazioa: Berba-lapiko taldearekin elkartu aurretik, aholkulariek implementazioaren harira sortutako zalantzak partekatu, bildu... Iraupena: ordu 1. Online.
IKASTURTE AMAIERA ETA BALORAZIOA	Esperientziaren balorazioa: prestakuntza prozesuaren ganean eta erabilitako materialaren ganean.	BNAek → ikastetxeekin balorazioa betetzeko bidali.	Galdetegia.
		BNAek → ikastetxeekin itxiera.	Aurrez aurre. Saioa galdetegia beteta ekarri. Elkarrizketa formatuan itxiera.
		SLK-Huhezi taldeak + BNAek balorazioa.	Iraupena: ordu 1 eta 30´. Online.

Berritzeguneko teknikariek ikastetxean erabili duten materiala Soziolinguistika klusterra taldeak prestatu du, haien lana errazteko. Horrela, teknikariei bai ahozko hizkuntzaren didaktikaren oinarriak bai materiala inplementatzeko metodologiak eta baliabideak eskaini zaizkie saioz saio, eta haiekin landu direnak izan dira gero beraiek ikastetxeetan landu behar izan dituztenak.

Prestakuntza prozesu hori behar bezala egituratzeko, honakoak dira bete diren lanak, goiko taulan ikus daitekeen moduan.

1. Antolaketa eta koordinazio-lanak burutu: taldeak osatzeko irizpideak markatu, talde ezberdinak koordinatu, ikastetxeen aukeraketa egin, datak jarri eta harremanetarako bideak sortu behar izan dira. Era berean, arduren banaketa ere antolatu da.
2. Prestakuntza-prozesua diseinatu: saioen denboralizazioa, helburuak eta materialak. Materialen kasuan, teknikariek erabili direnak nahiz teknikariek ikastetxeetan behar izan dituenak prestatzea izan da helburua.
3. Partaide izan diren teknikariek diseinatutako prestakuntza sozializatu Era berean, sozializazio-saio hori prestakuntzan zehar baliatu den metodologia kontrastatzeko ere erabili da.
4. Jarraipen saioak: aholkularien nahiz irakasleen prestakuntzari buruzko zalantzei, zailtasunei, kezkei edota kasuistika ezberdinei irtenbidea ematen laguntzeko.
5. Ebaluazio-bideak diseinatu eta prestatu; ondorioz, ikastetxe gehiagotara zabaltzeko nahiz plataforma digitalean jartzeko formazio-pilulak eta materialak egokitu dira balizko oztopo horiei erantzuteko.

1.2 2025-2026 IKASTURTERAKO AHOLKULARIENTZAKO PRESTAKUNTZA

2025eko udazkenean ere prestakuntza eman zaie aholkulariei eta, urtero bezala, beraien beharretara egokitu da. 2025-2026 ikasturterako, aholkulariek prestakuntza saioetara launaka joateko proposamena egin dutenez, saioen dinamika eta gidaritzaren moldatu egin behar izan dira. Hori kontuan hartuta, saioen edukia aholkulariekin batera diseinatu da, eta 2025eko iraileko saioetan oinarritzko prestakuntzaren edukia eguneratzeaz gain, **koirakaskuntzaren oinarriak** eta rolak ere landu dira. Horrela, ariketa praktikoen bidez, irakasleekin egingo zituzten saioen egituraren elementu horiek txertatzeko aukera izan dute.


Koirakaskuntza (irakaskidetzeta edo kodozentzia) bi irakasle edo gehiagok aldi berean irakaskuntza-lanean jardutea da, ikasleen ikasketa-beharrak asetzeko ardura partekatzen eta, aldi berean, elkarrekin ikasten dutelarik. Ikuspegi honen arabera, koirakaskuntza ez da helburu bat berez, baizik eta ikaskuntza-helburuetara iristeko bitarteko metodologiko bat: irakasleek elkarrekin planifikatu/diseinatu, gelaratu eta ebaluatzen dute, irakaskuntzaren alderdi guztietan lankidetzan arituz eta konfiantza eta elkar-laguntza oinarri hartuz.

Ildo horretatik, prestakuntza saioaren helburu nagusiak izan dira koirakaskuntzaren oinarriak ezagutzeko, koirakaskuntzan bereizten diren rolak ulertzea, eta Berba-

lapikoren metodologia kontuan hartuta saioetan norberak (eta taldekideek) zer rol hartuko duten identifikatu eta diseinatzea. Hortaz, koirakaskuntzak modu kontzientean eta aurrez adostutako logikarekin antolatzea eskatzen du, zehatzuz nor zer egingo duen noiz eta zer helbururekin. Praktikan, horrek lidergo partekatua eta rolen banaketa dakar, eta edozein rol aukeratuta ere, ezinbestekoa da elkarrekin diseinatzea eta saioa antolatzea, ondoren, gelako jarduna koherentea izan dadin eta ondorengo ebaluazioa elkarrekin egiteko modua egon dadin.

Rol nagusien artean (ikus beheko irudia), "bat irakasle, bat behatzaile" ereduan irakasle batek zuzeneko instrukzioa ematen du eta besteak ebidentziak biltzen ditu (adibidez, ikasleen parte-hartzea, galderen erabilera, talde-interakzioak, zereginen gauzatzea edo irakaslearen portaera), aurrez adostutako irizpideekin behaketa sistematizatuz eta ondoren datuak elkarrekin aztertuz hobekuntzarako erabakiak hartzeko. "Bat irakasle, bat laguntzaile" ereduan, pertsona batek ardura nagusia mantentzen du eta besteak gelan zehar zirkulatzen du, ikasleen beharrei lotutako laguntza eskainiz eta, behar denean, gelako jarrera edo kudeaketa erraztuz. "Irakaskuntza paraleloa" ereduan, bi irakasleek eduki eta testuinguru bera eskaintzen dute, ikasle taldea bitan banatuz parte-hartzea eta arreta pertsonalizatzeko aukerak handitzeko. Beste antolaketa batzuk ere proposatzen dira: *station teaching* edo estazio bidezkoa, non edukiak eta ikasleak azpimultzotan banatu eta irakasle bakoitzak zati baten ardura hartzen duen, ondoren txandakatzeko; *irakaskuntza alternatiboa*, non irakasle batek talde handiari eusten dion eta besteak talde txikiagoan arreta espezializatuagoa eskaintzen duen; eta *taldeko irakaskuntza*, non bi irakasleek aldi berean esku-hartze bera eramaten duten aurrera, koordinazio maila handiarekin eta espazio-denborak partekatuz.

KOIRAKASKUNTZARAKO ROLAK



2. irudia. Koirakaskuntzarako rolak

Azkenik, Berba-lapikoren metodologia aintzat hartuta koirakaskuntzan eman beharreko hiru saioak txantilo baten bidez diseinatzea eta diseinu horretan rolak aholkularien artean argi adostea proposatu da: zein momentutan zer eredu erabiliko den, zein datu jasoko diren (behatzaile rola dagoenean) eta nola egingo den saioaren ondorengo azterketa eta ebaluazioa.

Dena den, 2025. urtearen amaieran Berritzegune Nagusian izandako antolakuntza-egokitzapenen ondorioz, aholkularitzaren egitura eta funtzionamendua berriz moldatu behar izan dira: aholkularien arteko "trasbasea" egin da, ikastetxeetan egitasmoaren hedapena lau aholkulariren bidez antolatu da eta irakasleei eskainitako prestakuntza ere egokitu da, aurreikusitako hiru saioetatik bi saiora igaroz. Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsua izan da aholkularien eta Berba-lapikoko taldearen arteko koordinazioa eta jarraipen estua, prozesuaren koherentzia bermatzeko eta egokitzapenak modu eraginkorrean gauzatzeko.

1.3 IRAKASLEEN BALORAZIOAK

2024-2025eko ikasturtearen amaierarekin batera, ekainean proiektuan parte hartu duten irakasleen balorazioak jaso dira. Hona hemen prozesu horren zenbait datu:

- **31 ikastetxek** hartu dute parte balorazio prozesuan eta guztira **158 irakasleren** balorazioa jaso da. Metodologiaren lanketan aritu direnek online **inkesta** bat bete behar izan dute (150 irakaslek). Ikerketan parte hartu dutenak aurrez aurre elkarrizketatu dira haien balorazioa modu zehatzagoan jasotzeko (8 irakasle). Kasu horretan, elkarrizketaren gaiak aurreratu zaizkie haiek aldeztatik hausnartzeko tartea izateko eta ebaluazioa ahalik eta sakonena eta osatuena izateko. Saiok 45 minutu ingurukoak izan dira, eta audioz grabatu dira (ikus 2025ko 3.0 *Ikerketa* txostena).
- Balorazioaren **helburua** hauxe izan da: Berba-lapikoko errutinen esperientziaren amaierara iristear egonda, **irakasleen ahotsak jaso** eta benetan egindako prozesuaz eta ibilbideaz pentsatzen duten hori gurekin partekatzea, esperientzia nola bizi izan duten jakiteaz gain, hobekuntzak egin ahal izateko aurrera begira. Horretarako, hurrengo alderdietan jarri da fokua:
 - Metodologiaren inplementazioan
 - Metodologiak ikasle eta irakasleen artean izandako harreran
 - Irakasleek metodologia ikasgelan inplementatzeko jaso duten prestakuntzan
 - Proiektuaren balorazio orokorrean eta datorren urteari begirako proposamenetan

Irakasleen balorazioak behin jasota eta hustuketa eginda, corpusaren analisi bati kuantitatiboa bai kualitatiboa egin dira. Jarraian, horren analisiaren emaitzak eta ondorio orokor batzuk jasoko dira.

1.3.1 Nola sentitu diren

- **Nahiz eta lan karga handia dela aitortu, irakasleak gustura aritu dira.**

Irakasleak gustura aritu dira proiektuan eta beharrezkotzat jo dute gainera. Ahozkotasuna lantzeko lagungarria egin zaiela, ikasleak ere gustura ikusi dituztela eta haiengan ahozkotasunean hobekuntzak ikusi dituztela azpimarratzen dute. Bestalde, nahiz eta lan karga handia suposatu duen, prozesu osoaren balantze positiboa egiten dute:

"Aukera paregabea da euskaraz hitz egiteko, pentsatzeko eta baita guztion artean ikasteko ere" (DD Eskola, LH3)

1.3.2 Metodologia

- **Metodologiari eskainitako tartea eta ordutegia aldakorrak izan dira.**

Metodologiari eskainitako batez besteko denbora 20-45 minutukoa izan da. 20 minututik beherako saioak egin dituzten oso ikastetxe gutxi daude, baina batzuek 45

minutu baino gehiagoko saioak egin dituztela aipatu dute, izan ere, ekoizten ez zuten irakasleek ere parte hartu nahi izaten zuten:

“Egia da lagina gauza bat dela, baina gehiengoak parte hartu nahi izaten zuen, beraz, Berba-lapikorekin jarraitzen genuen”. (C, LH3).

Bestetik, egunero 20 minutuko saioak egitea ia ezinezkoa dela esan dute batzuk. Nahiz eta hala egitea komeniko litzatekeen, hainbat oztopo izan dituzte:

“Egunero 20 minutu ateratzeko zailtasunak izan ditugu eta batzuetan, saioak ezin izan ditugu aurrera eramán (bilerak, txangoak, ospakizun bereziak, ikasleen arteko gatazkak...)” (P, LH4).

“Egunerokotasunean, programatutakoaz a parteko jarduerekin bateratzeko zailtasunak: txangoak, grebak...” (EE, LH3).

- **Maila guztietan, materialak lagungarriak eta argiak izan dira irakasleentzat, “dena zegoen pausoz pauso azalduta”.**

Irakasleek materialetan egokitzapen zehatz batzuk egitea proposatu arren, orokorrean, haien ustez, saioak argiki bideratuta eta materialak ondo antolatuta daude eta lagungarriak eta erabilgarriak dira:

“Pertsonalki asko eskertzen da saioak hain bideratuta egotea. Oso antolatuta” (B, LH3)

“Oso lagungarria izan da, dena azalduta dago eta jarraitzea erraza da” (CC, LH2)

“Saio guztiak prest izatea eta material berririk sortu behar ez izatea oso lagungarria izan da.” (FF, LH1)

Hala ere, materiala eguneratzeko eta erakargarriagoa egiteko beharra ere aipatu da hainbatetan:

“Baliabide batzuk zaharkituak daudela iruditzen zait” (T, LH1)

“Materiala erakargarriago bihurtu teknologia berriak erabiliz” (W, LH1)

- **Oztopo nagusia denbora falta izan da.**

Denbora falta oztopo nabarmena izan dela identifikatu da:

“Denbora aldetik itota ibili gara eta askotan zaila izan da prozesua aurrera eramatea aurrean diren greba eta bestelako kontuekin” (A, LH3)

“Haurren erritmoa motela da eta denbora gehiago erabili izan behar dut” (GG, LH2)

Horrez gain, **taldearen izaerara egokitzeko** zailtasunaz ere aritu dira irakasle batzuk:

“Taldea hain euskalduna izanik, ez dio etekinik atera metodologiari. Lantzen diren edukiak eta egiturak sinpleak dira beraiantzat” (C, LH3).

“Ikastetxea nahiko euskalduna da eta materiala, batez ere bihurrikerien kontuetan, erraza egin zaie.” (Ñ, LH4)

Aurreko zailtasun horrez gainera, taldearen izaerara ez ezik **ikasle bakoitzaren beharretara egokitzeko** zailtasuna ere agertu da balorazioetan:


“Zeinu hizkuntzara egokitu beharko litzateke” (JJ, LH1)

“Egia da 2-3 ikaslerekin, erdaldunak direnak, batzuetan frustratuta ibili garela. Baina ohiko klase orduetan gertatzen da ere” (B, LH3)

1.3.3 Metodologiak izandako harrera

- **Oro har, hizkuntza errutinen metodologiak zer-nolako harrera izan du?**

Metodologiak **harrera ona** izan du. Irakasleei erakargarria iruditu zaie, eta ikasleak ere gustura aritu dira.



- **Ikasleek motibazioa erakutsi dute eta aktiboki hartu dute parte prozesuan.**

Ikasleek disfrutatu egin dute, motibazio handia erakutsi dute eta jarraitu egin nahi izan dute. Parte-hartzaile aktiboak izan dira eta beraien interesekoa izan da prozesua; gustura, pozik eta gogotsu parte hartu dute.

Irakasleek **ikasleak disfrutatzen** ikusi dituzte:

"Gustatu zaie gehien bat deskubritzerakoan jolas berriak, baita ere ikaskideen mezuak entzuteak. Poztasunez hartzen dute "Berba-lapiko momentua"" (LL, LH3)

"Lehen aipatu dudanez, euskararekiko gela ona da eta pozik jartzen dira musika entzuten dutenean eta korrika joaten direnean kojinen bila. (Ñ, LH3)

"Oso gustura ibili dira. Beraiek eskatzen zuten Berba-lapiko egitea." (P, LH4)

- **Erritmo oso ezberdinak egon diren arren, hobekuntza nabaritu da ikasleen ahozko ekoizpenean, bereziki maila baxua dutenen artean.**

Adibidez, hurrengoa aipatu dute:

"Hasierako ekoizpenak izan ziren oso oso sinpleak, antolatzailerik gabe, ez zekiten zer azaldu... Eta orain euskarri hori izanda ba aldaketa handia ikusten da" (B, LH3)

"Oztopo handirik ez da egon. Ikasleen ahozko ekoizpenak hobetu dira eta egunerokotasuneko gauzak kontatzeko ere erabiltzen dute ikasitakoa. Inoiz euskaraz ez zuen egiten ikasle bat ere euskaraz aritzen hasi da momentu batzuetan eta bera bakarrik egin izan ditu ekoizpen batzuk. Orokorrean hobekuntza nabaritu dut" (X, LH4)

Hobekuntzak, batez ere, **hiztegian** gertatu dira eta baita **diskurtsoaren egituraketan** ere.

Halaber, badaude hobekuntza nabarmenik sumatu ez dutenak ere:

"Ez dut hobekuntza handirik somatu. Euskaraz mintzatzen dira baina akats batzuk oso errotuta daude eta haietako batzuk zuzentzen aritzen gara." (P, LH1).

- **Ahozkotatasuna lantzeko sistematizazioa ezinbestekotzat jo dute irakasleek eta Berba-lapikok hizkuntza betaurrekoak jartzen lagundu die.**

Sistematizazioaren garrantzia behin eta berriro agertu da galdetegiko emaitzetan, irakasleak oso eskertuta daudela adierazi dute eta ahozkotatasuna lantzeko Berba-lapiko oso baliagarria izan zaiela azpimarratu dute, ahozkotatasuna lantzeko estrategia berriak eskuratu dituztela esanez.

Gainera, esan dezakegu proiektuak nolabaiteko kontzientzia piztu duela irakasleen artean, ondorengo aipuek adierazten dutenez.

"Formakuntzan esan ziguten, adibidez, ikasleak akatsak egiten dituenean ez zuzentzeko denbora guztian eta zentratzeko 2-3 pautatan. Eta zuzenketak egiteko bestelako estrategiak erabiltzea, ba errepikapenen bidez etab." (B, LH3).


“Tada 3. urtea da Berba-lapiko egiten dudala eta hasieratik hona nire jakintza eta betaurrekoak jartzeko modua ere aldatu egin da, gai naiz zer begiratu eta landu behar dudan ikusteko” (S, LH1).

“Azkenean proiektu honetan oso zehaztuta dago momentu bakoitzean fokoa non jarri behar den. Beraz, une bakoitzean egitura bati garrantzia ematen zaio” (J, LH2).

“Ikastaro honi esker ikuspegia aldatu dut eta orain garrantzi handiago ematen diot egiten dakitenari (eta ez hainbeste gaizki hitz egiten dutenari). Asko lagundu dit ikastaroak” (MM, LH1)

1.3.4 Prestakuntza

Jasotako prestakuntzaren balorazioa:



- **Prestatzailearen lana eta eskaintako laguntza gertukoa, primerakoa, argia eta egokia izan dela esan dute irakasleek; adjektibo horiekin definitu dute prestakuntza.**

Orokorrean, aholkularien lana goraiatu dute:

“Esker oneko hitzak besterik ez ditut Zuriñe eta Aitziberrentzat. Jasotako formakuntzak atseginak eta arinak egin dituzte. Betiere, norberak behar duen malgutasun hori eskaintzen eta egoerari moldatzeko aukera ematen. Uste dut lantalde bikaina egiten dutela bion artean eta niri pertsonalki, beti behar izan dudana hurbiltasuna adierazi didate.” (MM, LH2)

Hala ere, materiala ulertzeko lan handia egin behar izan dutela ere aipatu dute:

“Momentu batzuetan astuna egin zaigu materiala ondo ulertzea eta kudeatzea. Izan ere, tutore bezala lan karga handia izanik, batzuetan zaila egiten da ondo antolatzea eta aurrera eramatea.” (NN, LH3)

“Materiala ez da guztiz argian izan, behin eta berriz irakurrita ere zailtasunak nituen ulertzeko” (BB, LH2)

Horregatik, prestaketan materiala erreparatzeari denbora gehiago eskaini beharko litzaiokeela azpimarratu dute. Horrekin batera, prestakuntzak alde praktikoago bat izatearen garrantzia adierazi dute, baita berrikuntza batzuk txertatzearen beharra ere:

“Irakasleek jasotako prestakuntza beste era batera bideratu beharko litzateke; hau da, prestakuntzak alde praktiko bat izango balu, lagungarriagoa izan daiteke” (C, LH3)

“Niri astuna egin zitzaidan, teorikoa izan zen. Behar du praktikoagoa izatea. Bigarren aldiz egin dut formazioa, eta gelditu naiz berdin. Ez dut gehiagorik ikasi. Geratu naiz berdin” (A, LH3)


- **Prestakuntzaren gainean azaleratu diren oztopo nagusiak logistika kontuak izan dira.**

Logistikaz honako iritzia partekatzen da orohar:

“Eskola orduetan izan beharko luke, kontziliazioagatik asko oztopatzen du bilera arratsaldean izatea” (S, LH1)

“Formakuntza ordutegia agian ez da egokiena izan: eskola orduetatik kanpo egin izan dugu ikastaroa eta batzuetan neketsua izan da” (AA, LH3)

1.3.5 Balorazio orokorra



- **Irakasleek balorazio positiboa egiten dute: gehienek datorren urtean jarraitu nahi dute.**

Nahiz eta lan karga handiagoa ekarri duela aitortu, balorazio orokorra positiboa izan da. Aurrerapen nabarmena nabaritu dutela diote eta esfortzu handia eskatzen duen arren, metodologiarekin jarraitzeak merezi duela uste dute.

“Berez, egunerokotasunean horrelako jarduerak eramaten ditugu aurrera baina begirada non jarri behar dugun pentsatzera laguntzen gaitu Berba-lapikok.” (Y, LH1)

“Umeei jarriotasuna lortu behar dute hizkuntza honetan eta metodologia honek umeei gela barruan ahozkoa lantzeko tartetxo bat eskaintzen die. Lotsa dutenentzat ere aukera ona da.” (ÑÑ, LH3)

“Gure ikasleek ez dute eskolaz kanpo euskara erabiltzen. Metodologia honek ere klaseko dinamikarekin apurtzen du eta ikasleentzako erakargarriagoa da” (OO, LH4)

“Beharrezkoa iruditzen zait tarte hauek hartzea ikasleek hitz egiteko aukera gehiago izan behar dutelako, modu gidatuan, hizkuntza lantzeko, ahozkotasuna, egiturak...” (Q, LH4)

2 DIGITALIZAZIOA

Aurreko atalean ikusi den bezala, egitasmoa zabaltzen ari da eta gero eta ikastetxe gehiagok ematen dute izena. Hortaz, azken urteotan, hedapenarekin batera, ezinbestekoa iruditu zaigu maila digitalean salto kualitatibo bat ematea. Egun, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) tresna indartsuak ditugu jakintza sustatzeko, ez soilik ikasleentzat, baita irakasleentzat ere. Beraz, arlo digitalari garrantzia eman nahi izan zaio, proiektua eta bere eragina zabaltzeko asmoz eta funtzionamendu autonomo bat bultzatuz.

Hortaz, 2024an eman zitzaion hasiera prozesu horri. Horretarako, Moodle plataformaren garapena bultzatzeko lantaldea finkatu zen SLK-HUHEZI, Berritzegunea eta UEUren arteko lankidetzaren egituratuz aurrez aurreko zein online lan-saioen bidez. Kronograma adostu eta lana honako fase hauetan garatu zen:

- Hasierako azterketa
- Online egitura didaktikoaren diseinua
- Edukien online bihurketa eta Moodle ikastaroaren muntaia
- Amaierako kontrastea eta ekarpenak.

Plataformaren izaera berretsi zen (hezkuntza-komunitate osoarentzat, autonomia eta tutorizazioa uztartuta), edukia Hezkuntza Sailaren ereduari jarraituz antolatu zen (6 fase eta eduki/ataza/metakognizio logikan) eta, aldi berean, lehenetsita gisa identifikatu ziren eduki berriak sortzen hastea eta materialak sareko erabilerarako egokitzea (berrikuspenak, zuzenketak, irudiak eta jabetza intelektuala, etab.).

Xede hori lehenetsita eta iazko lanei jarraipena emanez, 2025ean egindako lanak jaso ditugu jarraian.

2.1 MOODLE PLATAFORMA

Aurten, lan-ildo honetan aurreikusitako eginkizunak betez, Moodle taldea berraktibatu eta talde berritua osatu da, EUSHIko aholkulariak, Berrikuntzako aholkulariak eta Berba-lapiko taldea elkartuz. Lantalde horren bidez, Moodle plataformaren zirriborroa elikatzeke lana egin da, bereziki LH1-4 mailako edukiei dagokienez.

Hona hemen sortu den edukia:

- Hasierako eta amaierako galdetegia
- Ariketen erantzunak
- Ikastariaren ebaluaziorako galdetegia
- Bideo profesionalak:
 - *Ongi etorri Berba-lapiko*
 - *Ikuspegi soziodiskurtsiboa*
 - *Hezkuntza errutina*

- *Elkarrekintzaren oinarriak*
- *Hizkuntza, mundua ikusteko modu bat*
- *Aurretetua eta ondostetua jasotzeko argibideak*

Asmoa da hurrengo urteetan lanketa bukatzea eta LH1-6 Moodle-a prest edukitzea.

2.2 MATERIALAREN LANKETA

2025ean LH1erako materiala elkarlanean landu da: Berba-lapiko taldeak materialetan beharrezko egokitzapenak egin ditu; Ikaselkarrek diseinuaren garapena eta jabetza intelektualaren zaintza bermatu ditu; eta Berritzegune Nagusiak aholkularitza pedagogikoa eskaini du.

Lan horren osagarri gisa, ikastetxeetan pilotajea aurreikusi da, irakasleen ekarpenak jasotzeko eta materiala erabilerara egokitzeko. Une honetan zirriborroa prest dago eta ikastetxeetan pilotatuko da. Jasotako ekarpenak etorkizunean baliatuko dira, bai LH1eko materiala fintzeko, bai ondorengo egokitzapenetan aurrera egiteko (LH2-4 eta LH5-6 materialak egokitzeko).

Horren lanketaren emaitza LH1erako materialaren bi eredu (Oinarrizkoa eta *Aurreratua*) PDF interaktiboa izan da (hau da, pantailan ikusteko eta inprimatzeko aukera ematen duena). Hona hemen horretarako egin diren lanak:

- Berba-lapiko unibertsoa sortu (marka, oinarrizko osagaiak, kolorea, letra-tipoak...).
- Edizioa:
 - Testuaren zuzenketa
 - Edukiaren koherentzia
 - Aholkularitza: besteak beste, euskararen kultur dimentsioa, genero ikuspegia, aniztasuna, gizarte inklusioa, ingurumena
- Jabetza intelektual, eskubideen gestioa:
 - Erabilitako edukien azterketa xehea
 - Lorgarriak diren eskubideen gestioa
 - Harremanak eta proposamenak landu:
 - Eskubideen erantzukizuna, akordioak sinatzea eta ordaintzea Klusterrari dagokio, Berba-lapiko proiektuaren jabeari, alegia. Ikaslar Klusterraren izenean arituko da bitartekari lanetan.
 - Eskubideak lortu ezin diren kasuan, baliabide berriak proposatzea edota egitea ez dago aurrekontuan jasota.
- Diseinua eta maketazioa:
 - Ilustrazio berriak sortzea
 - Berba-lapiko unibertsoan oinarrituta edukiaren diseinua proposatzea
 - Diseinuan oinarrituta edukiaren maketazioa

Jarraian daude LH1erako material berrituaren irudiak, lagin gisa (material osoa txosten honetan erantsi da):

- Logoa:



- Aurkibidea:

<h2 style="margin: 0;">NOR DA NOR</h2> <p style="margin: 0; font-size: small;">Istorioen eta argazkien bitartez elkar gehiago ezagutzen. Iraupena: 15 salo</p>		
<p>1. SAIOA (40 min)</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 1 fitxa (13. orrialdea) > Testuinguratzea 2 fitxa (14. orrialdea) > Nor da nor? Irakasleak eredu bat emango du 3 fitxa (15. orrialdea) > Aurrera begira antolatzen 4 fitxa (18. orrialdea) <p>2. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 1 fitxa (13. orrialdea) > Ikasleen ekoizpena 5 fitxa (19. orrialdea) <p>3. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 1 fitxa (13. orrialdea) > Ikasleen ekoizpena 5 fitxa (19. orrialdea) <p>4. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 1 fitxa (13. orrialdea) 	<ul style="list-style-type: none"> > Ikasleen ekoizpena 5 fitxa (19. orrialdea) <p>5. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 6 fitxa (33. orrialdea) > Testuinguratzea 7 fitxa (34. orrialdea) > Mattin Zaku ipuina 8 fitxa (35. orrialdea) <p>6. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 6 fitxa (33. orrialdea) > Ipuina gogoratzen eta finkatzen 9 fitxa (36. orrialdea) > Nire argazkia 10 fitxa (41. orrialdea) <p>7. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 6 fitxa (33. orrialdea) > Ikasleen ekoizpena 10 fitxa (41. orrialdea) > Nolakoa da etxea? Zer du etxeak? 11 fitxa (42. orrialdea) 	<ul style="list-style-type: none"> > A Poltsatxoa: Hitz berriak 12 fitxa (52. orrialdea) <p>8. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 6 fitxa (33. orrialdea) > Ikasleen ekoizpena 10 fitxa (41. orrialdea) > Esku-hartzea 13 fitxa (55. orrialdea) > A Poltsatxoa: Hitz berriak 12 fitxa (52. orrialdea) <p>9. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 6 fitxa (33. orrialdea) > Ikasleen ekoizpena 10 fitxa (41. orrialdea) > Esku-hartzea 13 fitxa (55. orrialdea) > Mattin Zakuren irudia: NON 14 fitxa (56. orrialdea) <p>10. SAIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> > Girotzea 6 fitxa (33. orrialdea)

- Hona hemen fitxa eredu batzuk:

1 FITXA

GIROTZEA


SAIOAK: 1, 2, 3, 4

Saio guztien hasieran **abesti hau** entzungo dugu.

MINUTU BAT GOIZERO

Pirritx eta Porrotx

<p>Eguna argituaz batera badator ilargia ohera gure ametsen zaindari lo-lo egitera.</p> <p>Izarapean ez dago izarrrik panpina eta biok bakarrik egun berriari keinu eginez pozik.</p> <p>Minutu bat goizero-goizero ditudan gauza onak kontutan hartzeko hirurogei segunduan bizitzari mila esker.</p> <p>Minutu bat goizero-goizero irria aurpegian zintzilikatzeko oihu egin nahi dut ozen bizitzari mila esker.</p>	<p>Hotz kalean, ni goxo etxean katilu soinuak sukaldean gogoz estutu nahi zaitut zu ikustean.</p> <p>Txirrinda, liburu, ordenagailu, hiru soineko, zazpi jostailu, denak politak bai, baina politena zu!</p> <p>Minutu bat goizero-goizero ditudan gauza onak kontutan hartzeko hirurogei segunduan bizitzari mila esker.</p> <p>Minutu bat goizero-goizero irria aurpegian zintzilikatzeko oihu egin nahi dut ozen bizitzari mila esker.</p>
------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------


BEHIN-BEHINEKOA
13

3 FITXA

NOR DA NOR

SAIOA: 1

Irakasleak dinamikaren azalpena egin ondoren, adibide bat emango du, bera eredu izanik. Hurrengo egunetan, 10 ikaslek ariketa hau egingo dute eta aurretestuak jasotzeko aukera izango da.

Urratsak


1. Irakasleak istorio bat kontatuko du (16. orrialdeko irudietan ikusten duena baliatuta).
Kontaketa ahoz egingo da, paperik gabe. Ez dago berdin-berdin kontatu beharrik beheko adibidea, baina garrantzitsua da EREDUTIK HURBIL EGOTEA (antzeko eskema izatea). Izan ere, ikasleentzako aurrerago langai izango dena jasotzen da.

Egun batean gure laguna bakarrik zegoen harrien artean goxo-goxo lo-kuluxka egiten, baina bat-batean euria hasi zuen barra-barra!
Bera azkar esnatu eta korrika hasi zen aterpe baten bila. Zorionez, onddo handi bat gertu zegoen, eta bere azpian babestu zen eta lo-kuluxka egiten jarraitu zuen, lasai-lasai.

2. Pantaila handian 6 pertsonaren irudiak jarriko dira (17. orrialdean) eta ikasleek asmatu egin beharko dute irakasleak emandako ereduko pertsonaia nor den.

Oharra


- Ereduak galdera hauei erantzungo die (momentuz ez ditugu idatziko):
 - Non zegoen?
 - Norekin zegoen?
 - Zer gertatu zen


x 8,27 hazb. BEHIN-BEHINEKOA
15

3 FITXA



MARI GORRINGO



BERBA LAPICHO BEHIN-BEHINEKOA

16

3 FITXA



BIZKOR



AZERI GOSETI



XUBANE ZIKIN



MARI GORRINGO



MATTIN ZAKU



JOSEBA AZENARIONDO

BERBA x 8,27 hazb. BEHIN-BEHINEKOA

17

Lanketa honi jarraipena emateko asmoa dago hurrengo urtean ere, materiala guztiz egokia eta legezkoa dela bermatzeko (bereziki, jabetza intelektuala zainduz, irudien erabilera eta lizentziak egokiak direla egiaztatuz, etab.) eta, behin egiaztapen horiek eginda, ikastetxeetan modu seguruan eta eraginkorrean zabaldu ahal izateko. Ildo berean, hizkuntza errutinaren esparruan LH1 dagoeneko egokituta dagoenez, LH2, LH3 eta LH4 materialak amaitzea komeni litzateke; eta, aldi berean, sekuentzia didaktikoari dagokionez, LH5 eta LH6 materialak ere egokitzea, Lehen Hezkuntzako etapa osorik hartzeko.

3 ONDORIO NAGUSIAK

Jarraian jaso dira 2025ean egindako lanetatik ateratako ondorio nagusiak:

- **Hedapenaren norabidea berretsi da**, hasierako ikerketatik eratorritako ezagutza eta ikaskuntzak antzeko egoeran dauden ikastetxeetara transferitzeko helburuari eutsiz eta 2025ean ere ildo horretan lanean jarraituz.
- **Parte-hartzea esanguratsua eta egonkorra izan da**: 2024-2025 ikasturtean 41 ikastetxek parte hartu dute, 5.236 ikaslerekin eta 331 irakasleren prestakuntzarekin, egitasmoaren zabalkunde-maila eta eragina agerian utziz.
- **Aholkularitzaren egituraketa eta antolaketa-koordinazioa funtsezkoak izan dira** prozesua behar bezala gauzatzeko, agenden uztarketatik hasi eta ikastetxeekin harremana, ikerketa-ikastetxeen hautaketa eta sarreraren diseinuraino.
- **Prestakuntza-eredua faseka antolatu eta jarraipenarekin osatu da**, aholkularien prestakuntza, BNAREN barne-koordinazioa, irakasleen prestakuntza, jarraipen-saioak, inplementazioaren aktibazioa eta amaierako ebaluazioa modu koherentean uztartuz.
- **Lan-dinamikak joan-etorriko izaera izan du**, ezagutza "behin emandako prestakuntza" gisa ulertu beharrean: oinarriak partekatu, ikastetxean garatu, deboluzioa jaso eta egokitzapenak egin ahal izateko jarraipena proposatu da.
- **Irakasleen balorazio orokorra positiboa izan da**, lan-karga eta denbora-mugak agertu arren; oro har, proiektuak ahozkotatasuna lantzeko tresna eta ikuspegi baliagarriak eskaini dituela eta jarraitzeko interesa piztu duela ondorioztatzen da.
- **Inplementazioan eragina izan duten oztopo nagusien artean denbora falta nabarmendu da**, eta garapena testuinguruaren arabera aldakorra izan da (eskola erritmoak, jarduera bereziak eta taldearen ezaugarriak), doikuntza-premia agerian utziz.
- **Hizkuntza-errutinen metodologiak harrera ona eta eragin positiboa izan du**, bereziki ikasleen motibazioan eta parte-hartzean; hainbat ekarpenetan ikasleen "komunikatu beharra" aktibatu dela eta ahozkotatasunaren gozamina handitu dela jaso da.
- **Digitalizazioa hedapenari eusteko eta eragina handitzeko ardatz estrategiko gisa sendotu da**: 2025ean Moodle taldea berraktibatu eta plataforma elikatzeke lana egin da, bereziki LH1-4 edukiarekin eta hainbat baliabide berrirekin (galde-egutziak, atzak, bideoak...).
- **Etorkizuneko lan-ildoak argi identifikatu dira**: LH1 materialaren pilotajea egin eta ekarpenak txertatzea, materialaren legezketasuna eta jabetza intelektuala bermatzea, eta oinarri horrekin LH2-4 (hizkuntza errutina) eta LH5-6 (sekuentzia didaktikoa) egokituz Lehen Hezkuntzako etapa osoa osatzea. Aldi berean, helburua da LH1-6 Moodle ikastaroa osorik osatzea.